

AIA: LANDA-TURISMOA / ELKARRIZKETA: KAMEL BOURAS
ERREPORTAJEA: EUSKARAZ, AITA!

KARKARA

97A

Urte berri on!

Izan zaitez KARKARAren laguntzaile!

Laguntzaile bila ari gara berriro. KARKARA etxean jasotzearen truke urtean 2.500 PTA ordaintzeko prest dauden lagunak behar ditugu.

KARKARAren laguntzaile izan nahi baduzu, oso erraza da: eskuetan duzun paper hau (edo fotokopia, moztu beharrik ez duzu) zure datuekin bete eta utz ezazu KARKARAren buzoian (Udaletxe atzeko karkaran dago oraindik) edo bidal ezazu korreoz. Gu arduratuko gara gainontzekoaz.

Jakina, iaz edo orain bi urte laguntzaile egin zinetenek ez duzue berriro egin beharrik.

KARKARA TALDEA

Karkararen laguntzaile izan nahi dut

Izen-deiturak:

Helbidea:

Kodea:

Herria:

Telefonoa:

KARKARA aldizkarioren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago **KARKARA** urteko 2.500 PTAko laguntza emateko.
Hauek dira nire kontu korronteko datuak:

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

Entita-
tea

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------	--------------------------

Sukurtsala

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
--------------------------	--------------------------

KD

<input type="checkbox"/>							
--------------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------

Kontu-zenba-
kia

KARKARA ALDIZKARIA, Herriko plaza, 1 20810 ORIO Tel.: 943 83 15 27

KARKARA

Orio eta Alako aldizkaria

Kultur etxea
20810 ORIO
Tel. 943 83 15 27

Posta elektronikoa:
karkara@topagunea.com

LEGE GORDIAKUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.600 ale

EDITORIA

KARKARA TALDEA
kultur elkartea

ZUZENAKA

Ana G. de Txabari

ERREDAKZIO SIRIA

Rikardo Uzkudun

ERREDAKZIO TALDEA

Pat Cowie, Miren Etxeberria,
Jakes Goikoetxea, Ana Iturain,
Iñaki Iturain, Nere Manterola,
Ainara Peña eta Jabi
Zabaleta

ALAKO ERREDAKZIOA

Eli Lasa

PUBLICITATEA

Ainara Peña

TESTUEN ZUGIKINTZA

Iñaki Iturain eta
Jabi Zabaleta

ALE HONETAKO LAGUNTAZALEAK

Arreta KE, Ruben Iglesias,
Jose Mari Lertxundi,
Patxi Oliden eta Asier Uranga

ARGAZKIAK

Ana G. de Txabari

DISEÑO

AZALIA Golo Arana

BARRUKOA Jabi Zabaleta

PUBLICITATEA Iñigo Gaztañazpi

AZKEN ORRIALDEKO MARCAZKIA

Iñigo Manterola

BANATZAILEA

Miguel Angel Sanz

IMPRESIONES

Gertu Koop, E. (Ofnati)

KARKARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
edota iritzien erantzukizunik.

KARKARA argitaratutakoa berri-
man daiteke, osorik edo zatika,
baldin eta itunia zipatzen bada.

BERTSO JARRIAK

Jesus, Maria ta Jose!

Fededun izan, ateo izan
Gabonak ez bitez ahitu;
kaleak kantuz, bonbilak argiz
eta belenez alaitu.
Ederrak edo faltsuak dira,
ohi ditugu guk epaitu,
mundua hala egina dago
ta ezin degu garaitu,
Gabonetako izpiritua
denok harrapatzent gaitu.

Agur esanaz urte osoan
mantendutako dietari,
zoriona da mahai inguruau,
tertulian ta kantari;
sendi osoa bildu ohi gera
eta ederra da hori,
ez da faltako bromarik eta
barreak ere ugari,
Gabonak gure elkartasunak
egiten baititu haundi.

Errege Mago ta Olentzero
denok oparien gose,
merkatariet asmatutako
trikimailuak, bai hoixe,
hainbat interes ekonomikok
menpean gaituzte aise,
kontsumismora erori gera
beraiek nahi bezalaxe,
Jesus jaio dan kontu honekin
Jesus, Maria ta Jose!

IBAI ESOAIN

2000KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulu bat	2.000 PTA
Bi modulu	4.000 PTA
Hiru modulu	6.000 PTA
Lau modulu	8.000 PTA
Sei modulu	12.000 PTA
Zortzi modulu	16.000 PTA
Orrialde erdia	20.000 PTA
Orrialde osoa	35.000 PTA

Prezio hauek zenbaki
baterako balio dute.
Publizitatea urte osorako
kontratatzeko dutenel % 10eko
deskontua egingo zaie prezio
hauen gainean.



Gipuzkoako Foru Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileak
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Surf berdintzailea

Gehienek dakizunetan, aurtengo sanikolasek ere izan dute bere tartea kirol ekitaldientzat, eta antolatu diren kirol ekintza horietako bat surf txapelketa izan da. Udalak diru kopuru bat eman du kirolari hauek ere beren txapelketa izan dezaten, eta lehia abenduaren 4an izan zen.

Herrian surf egiten dugun ia denok hartz genen parte, beti bezala lagun arteko giro onean; baina zein izango nire sorpresa sarien garaia heldu zenean! Hemezortzi urtetik beherakoentzat hiru sari banatu ziren; adin horretatik gorakoentzat, zortzi sari; eta neskentzat, bat ere ez! Beraz, nik mutilen aurka jokatu nuen, neuk jakin gabe.

Honen arrazoia zein zen argitzeko eskatu nienean, beste mutilei adina aukera eman zidatela esan zidaten, ez gutxiago. Eta honen ondoren, galdera bat sortzen zait: zein neska animatuko da kirol hau praktikatzen era honetako *berdintasunarekin* tratzen gaituztela ikusirik?

LEIRE VALVERDE MAYORA

Festak Orion

2000. urtean sartu gara eta, hala ere, gure herrian ez dira betetzen oraindik eskubiderik oinarritzkoenak. Elkarbizitza behin eta berriz urratzen da. Hori ez da berria eta badaligu; baina, hala ere, uste dugu alkateak zerhain esan beharko lukeela honi buruz, gure ordezkaria izateaz gain, festa zoriontsuak opa baitizkigu.

Kontua jakina da: herriko festetan utzi egiten zaie denok ezagutzen ditugun tabernari 'ukiezmei' gau osoan taberna zabalkizaten, goizeko zortziak arte, sekulako burrunda, oihu eta zalaparta artean. Horren aurrean, zuk, alkate jauna, ez duzu ezer egiten; beharbada, imajinaziorik ez duzulako alkoholari alternatibak hilarzeko, eta, tartean, negozio ugari eta eskrupulo



Gutunetarako

KARRAKA

Argitaratu nahi diren gutunak KARRAKAren buzoian utz daitezke (udal-letze atzoko portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxearen). Posta elektroniko ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARRAKA ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARRAKA bere egiten du eskutizak laburteko eskubidea.

gutxi dagoelako.

Urtero gertatzen da berdin: kaleko seinalak, kabinak eta abar txikituta; kalteak jabetza pribatuetan; erasoak herritarrei... Horren kontra salaketa ugari jarri izan da (zuk jakingo duzu, bestalde, non bukatu duten salaketa horiek). Nola justifikatzen duzu hori dena? Zure pasibitatea arduragabea da, gutxi-gutxienez. Oriotarron arteko elkarbizitza modu eskandaluzkoan-ari da urratzen zure bistan, eta zu, zeren zain zaude?

Edo hau izango ote da, alkate jauna, oriotarrok merezi duguna?

**ANDRES SÁNCHEZ ETA BESTE ZAZPI IZEN
(DVTIK HARTUA)**

Alderdi zaharra gero eta zaharrago

Orioko alderdi zaharraren egoera txarrari aurre egiteko asmoz, 1987-1991 legealdian, Udalak inguru horretako rehabilitazio planaren estudioa prestatu zuen. Plangintza

hartan, eraikuntzak berritzeko iradokizun eta arautegiak finkatzeaz gain, aparkaleku zein ekipamendu (parkera, museoa...) ezari aurre egiteko hainbat proposamen egiten ziren.

Proposamenetako bat Iturbide kalean dagoen eskolaurreko gune guzti hori parke bihurtzea zen, haren azpian 60 bat ibilgailuetariko aparkalekuak eginez.

Begi bistakoa da horrelako parke hantek, goiko kaleari emango liokeen bizia eta, zer esanik ez, aparkalekuaren arazoari dagokionez.

Zortzi urte badira lan hura bukatu zenetik, eta orduan egindako lanak ez du inolako jarraipenik izan; ondorioz goiko kalean hizitzeak gero eta erakargarritasun gutxiago du eta pixkanaka etxeak hustutzen ari dira.

Laster Udaletxeko berrikuntza lanak egin behar direla eta, goiko kaleko eskolaurrean Musika Eskola betirako jartzeko asmoa agertu du Orioko EAJ-PNVk; erabaki honekin, goian aipatutako aukera guztiak, inongo eztabaidarik gabe, betirako hantzten diru.

Alderdi zaharrari eta goiko kaleko bilagunen beharrei begira, begirune gutxi erakusten du EAJ-PNVk. Inongo eztabaidarik gabe, alderdi zaharraren geroa baldintzatzen duten erabakiak hartzen diru.

Aspaldidanik ari gara eskatzen, gai honetaz dauden ikuspuntu ezberdinak arrazoi eta eztabaidaren bidez, gehiengoak erabaki shal izatea; nire ustez, alderdi zaharrak benetako lehentasuna behar du eta Musika Eskolarentzat badauaude beste aukera barzuk.

Orioko alderdi zaharra, zaindu eta biltzatu beharreko ondarea dugu. Egungo egoera kaxkarra aldatzeko, ekimen iraunkorak eta neurri ausartak behar dira. Honetan ezin dugu hutsik egin.

**EMETERIO IRIBAR
EHKO ZINEGOTZIA**

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

Zer iruditzen zaizu, hemendik aurrera, abizenen ordena aukeran izatea?



JOSEFINA GARMENDIA
70 urte

Lehen zegoen legea, aurrera aitaren abizena jartzearena, hoheto ikusten dut nik. Hala ere, oraingoa errespetatzen dit, ordena aukeratzea norberaren esku gelditzen delako.

Ez zait iruditzen ohitura aldatuko direnik; nire familian ez, behintzat.



ANTONIO REZABAL
51 urte

Ni aitarena lehenengo jartzearen aldekoa naiz; alegia, oraïn arte bezala segitzearen aldekoa.

Denbora joango da gaurko ohitura aldatzen hasteko.

Ez dut uste lege aldatuak honekarazorik ekarriko deneanik, bakarrik zailagoa izango dela abizenen bidez gurasoekin identifikatza.



AINHOA UBEGUN
28 urte

Ondo iruditzen zait horretarako aukera ematea, Hala ere, nik lehengo eran jarraituko nuke.

Denborarekin ohitura aldatuko dela uste dut, eta, gainera, etorkizunean, jendeak amaren abizena lehen-dabizi gehigotan jarriko duela aitaren baino pensatzen dut.



MAIDER IRURETAGOIEA
18 urte

Oso ondo. Ez diot sekula planteatu horrelakorik nire burnari, baina lehenengo amarena jarriko nukeela iruditzen zait.

Piska bat kostako da jendea aldatzen hastea; baina, orokorrean, ez duela arazorik sortuko uste dut.

Orioko Ogia

MORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoin
Itnoa: 943 83 01 89

PATXI OLIDEN

AZKARTUA
PATXI
OLIDEN
Etxeko produktuak: tripoli, edoki, txakoli, txotx, kroket...

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripoli, edoki, txakoli, txotx, kroket...

Eusko Gudori, 25 Tel. 943 83 00 10

HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

ALUYOLA, S.L.

Futurum Artesania

LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK
P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANO SISTEMA
PERFIL THERMIKO

PRESUPUESTOAK KONPROMISOKI GABE

Joizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefona: 943 36 22 77



MARINEAK KONTUAK. Datorren kostera ez zai oso erraza izango gure arrantzaleei.

Kanpaina kaxkarra

■ *Europako Batzordeak hartutako erabakia ere eskasa.*

1999ko barrapaketak ez dira oso onak izan, nabiz eta Britainiako esperientzia nabikoa ongi joan den. Gainera, antxoaren kuota erdira jaistea erabaki du Europako Batzordeak. Datorren kosterarako panorama, beraz, ez da batere baikorra.

ABENDUAREN 18an jakinarazi zuten antxoaren kuota erdira jaitsiko zutela ekaina bitartean. Hasiera batean, Europar Batasuneko komisarioak, Franz Fischlerrek, proposatzen zuen %85eko murrizketa atzeratu bazen ere, erabakia ez da batere ona izan herriko arrantzaleentzat. • 14.000 tonako antxoaren kuota

gelditu zaie ekaina arte, eta azken urteetan izandakoak kontuan hartuz—13.000 tona gutxi gorabehera—, ez zaie tarte handiegirik geratzen arte osorako.

Bestalde, frantziarrei uda-

berrian antxoriak ez harrapatzearik ematen zitzaien kuota zatia, eman ezinik gelditu diragureak. Hala ere, ez omen dute oraingoz frantziarrek udaberrian antxoa harrapatzeko intentziorik.

HARIARI TIRAKA

Antxoaren kuota

Asier Uranga

Azkenaldi honetan asko entzun da komunikabideetan antxoaren kuota gurxitu behar dutela. Esaten zutena baimo gutxiago muritztu badute ere, Euskadiko bajurako arrantzaleak ez gura batere gustura gelditu. Gure iritziz, alferrik da kuota erdira jaistea, frantziarrek Portugalekin hitzartutako 5 tona antxo Bizkaiko golkoan harrapatzentzitzen badute. Ez da logikoa kuota jaitsiaraztea Portugalen harrapatu beharrekoa hemen harrapatzzen bada. Gainera, Frantziako baporen deskargak gehiago kontrolatu behar direla uste dugu. Ikusi beharko dugu zer gertatzen den ekainean, orduan aztertuko baitituzte, berri, antxoaren kuotak.

UDABERRIKO ANTXOA BETI BEZALA

Iazko udaberriko kostera ez zuen ezer berririk ekarri. Gororatzeko da bapore bat gutxiago itsasoratu zela iaz eta ondorioz, irabazi orokorrak jaitsi egin direla. Gainera, antxoaren prezioa jaisten ari da urtetik urtera.

HEGALUZEAREN KOSTERA MOTZA

Aurten goan ere, hegaluzearen kostera oso laburra izan da. Lehenengo mareak onak izan ziren, baina irailaren erditik aurrera ez zen hegaluzerik harrapatu. Azken urte hauean hegaluzearen prezioa ere erori egin da, kofradako idazkariek esan digunez, urtero batzaz beste 25 pta. jaisten da. Aurten hegaluzearen kiloa 389 pezetan saldu da eta iaz, berri, 424 pezetan.

BRETAINIako ABENTURA

Inoiz ez bezala, aurten Bretaniako alderia joan ziren sannigiletan Orioko hiru bapore, Bertran, antxoia dexeente harrapatu zuten, batez ere, lehenengo hilabetean. Nahiz eta prezioa oso baxua izan, Getariako saltzaile batekin adostua zuten prezioa aldez aurretik eta nahikoa gustura azaldu dira hemengoak. 1000 bat tona harrapatu dituzte Getariako eta Orinoko 12 baporeren artean.

AURTEGORAKO PANORAMA TXARRA

Lehen aipatutako kuota murrizpenak kezka handia sortu du hemengo arrantzaleengan. Horri gotxi balitz, Irlandako pelagikoak gero eta gehiago omen dira, ondorioz, hauet eragingo duten sarraskia ere handiagoa izango da. Biologoek gomendatu dute, gainera, Kaurikoko itsas flota ez handitzea.

Hala ere, bajurako baporen berritzeak aurrera jarraitzen du. Oraingo honetan, Montserrat Berria prestatzetan ari dira datorren kosterarako. Seguru asko, ez da martxo rako prest egongo, baina apirilera itsasoratzeko esperaniza dute.

Txuri-beltzko argazkiak Salatxon

URTARRILAREN 17an jarriko dira ikusgai Segundo Izpizua donostiarren txuri-beltzko argazkiak.

Josetxo Egibarrek esan digunez, oso argazkilari oina da Segundo Izpizua eta interesgarria izango da erakusketa.

Arkupekoen zozketaren zenbaki sarituak

HONAKO zenbaki hauek izan dira sarituak Arkupe elkartearren urterozen zozketan:

Merkataritzan, 56455, 46258, 9000, 10640, eta 23444 zenbakiak (50.000 pta.ko txartela erosketak egiteko).

Ostalaritzan 03852 zenbakia (bi lagunentzako aste beteko bidaia Kanaria ritarra).

Profesionalen sailean, berriz, 16411 eta 15572 zenbakiak (40.000 pta.ko bi txartel).



BANTZAR TALDEA. Lasarten erakustaldi ederra eskaini zuten urtarrekin.

Musika eskolakoak nagusi kanpoan

MUSIKA ESKOLAKO DANTZARIEK hainbat emanaldi eskaini zituzten abenduan. Lekhengoa, Lasarten izan zen hilaren 11n, Euskal Herriko dantza zentroen erakustaldien barnean. Bertan, 12 eta 13 urteko gazteek osatutako taldeak *Ohadu* izeneko koreografia berria estrenatu zuen. Abenduaren 19an Donostiako Amara auzoan izan ziren beste batzuk Ikerkide kultur elkarteko Dantza Txiki egunean. Eguinaldi txarra izan zuten; baina, horri aurre

eginez, Orioko hiru talde aritu ziren, bakotzak sei bat dantza eskainiz.

Esku soinuko ikasleek, berriz, azaroaren bukaeran Torrelavegako nazioarteko VII. esku-soinu lehiaketan lehen eta bigarren postua lortu zituzten. Txikiek lehena *segunda media* mailan eta handiek bigarrena *segunda superior* mailan. Arrasateko XII. lehiaketan ere izan ziren abenduaren 3tik 8ra bitartean. Domina ugari lortu zituzten bertan Orioko ikasleek.

ertza
usaidegia

Teléfono: 943 83 09 09

Peluquería y estética mixto

ZSS

Tintorerías, peluquerías, maquillaje
Barbería y cortes de manicura
- Afeitado automático
- Peinado
- Depilación

See Bikotea. Tel: 943 83 51 70

AUTOAK SUCERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonos: 943 13 04 38

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hielo al por mayor

ERRUSTA
Kriston bokadillok!!

La confianza es lo que más

Koasta

- * Donostia eta probintziako ospitaletan
- * Aldioroko zerbitzuak
- * Belotorio gelaak
- * Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz.
Tel/Fax: 943 13 22 52



ESNALARIK. Esnalari familiako seiak juntatze zirene Karmelaren omenaldian. Eskubirik hasita Igarvena dugu Karmele.

Karmele Esnal saritua

■ *Gipuzkoako Aldundiak eman zion Antton Abadia saria*

GIPUZKOAKO AGINTARIEN ESKUTIK jaso zuen Karmele Esnal andereñoak aurtengo *Antton Abadia* saria hilaren 17an. Sari hau, euskararen inguruan lan handia egin duten pertsona edo elkarteko gipuzkoarrei ematen zaie eta miloi bat pezetako diru-saria eta oroigarria jasotzen du sarituak. Orain arteko urteetan sarituak Arantzazuko fraileak, AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) eta Antton Olariaga izan dira. Aurtengoan, berriz, Donostian bizi den andereño oriotarra saritu dute diktadura garaian ikastolak sortzeko eta indartzeko egindako lanagatik.

Jende asko bildu zen sari-banaketara eta omenaldi goxoa jaso zuen Karmelek Gipuzkoako Aldundiko areto nagusian. Saria, Luis Bandres kultur diputatuak eman zion,

Aipatzeko modukoa da, bere ikasle izandako asko hurbildu zirela ekitaldira, esaterako Miren Azkarate, euskaltzaina; andereño gogorra zela esan ziguten berari buruz galdezcan.

Karmelek berak argitu zigunez, San Nikolas karkarako 5.ean—Paxitaneko atzealdean—bizi izan zen hautzaroan. Gero, 7 bat urte zituela, Donostiari joan zen bizitzera familia osoa. Aita getariarra zuten, kontserbagilea, eta frontoi inguruan zuten eskabetxeria. Ama, berriz, oriotarra: Zulaika Lertxundi, Centellas kastakoien izterlehengusuna. Azken honengandik jaso omen ziren euskalzaletasuna. Bereganana hurbildu ginenean esan zigun aurreneko gauza zera izan zen: *rik beti oriotarea naizela esaten det*. Eta azkenekoa: *Aupa Oria!* Hortik atera kontuak.

BERRI LABURRAK

Txistorra lehiaketako saria

EZ da lehenengo aldia Orioko harakinak sarren bat jasotzen dutela. Lehenengo urteko santmartinetan irabazi zuen Donostian odolkiaren lehiaketa Kepa Loidik.

Oraingo hohetan Txaganeko Etor Manterola izan da Zarauzko txistorra lehiaketa irabazi duena. Lehiaketa abenduaren 18an egin zen santotomasak zirela eta. Etorrek, Zarauzen harategia edukita, ederki aprohetxatu zuen aukera.

Ortiz Etxagueren argazkiak ikusgai

DONOSTIAKO Untzi Muscoan dituzue ikusgai Jose Ortiz Etxagueren argazkiak. Honezkero jakinago duzuenez, garai bateko Orioko pertsona asko azaltzen dira fotografietan eta KARKARAk, orain dela bi urte, horietako batzuk erabili zituen azken orrialdea apaintzeko. Erakusketa otsailaren 27an kenduko dute, beraz, oraindik baduzue denbora bisitatxo bat egiteko.

Orioko kultur teknikariak esan digu, bestalde, berak ere ahaleginak egingo dituelako erakusketa Oriora ekartzeko.

LABORARGI, S.L.
AHORRULARITZA (Euskal, Laboral, Komahlea,
Finantziaria, Aurregaserrak)

MAPFRE
MAPFRE ASEGUROUAK

EUSKO GUDARIA, 1 E - TEL: 943 15 37 20 FAX: 943 83 52 98 - 20810 ORIO

GOIZERO

Aita Lertxundi, 33
Tfnoa: 943 83 28 55

***CAFETEGIA**
***IZOZKIAK**
***CROISSANDEGIA**

Pasteleriko
enkorguak
hartzen dira

Udalbiltzarekin bat egitea erabaki du Udalak


ABENDUAREN 28an egindako udal plenoan erabaki zen Orioko Udalak bat egitea Udalbiltzaren proposamenekin. Alderdi abertzaleetako 10 botoekin onartua izan zen ia aho hantz, PSE-PSOEko zinegotzia abstentu egin baitzen.

Gas-hodiak jartzeko obrak

BEHEKO kalean zanga ugari irekitzen ari dira azken aldi honetan, gas-hodiak sartzeko, eta herriaren erdia hankaz gora dago.

Kiruldegrako hasi ziren jartzten eni herritarrek egindutene eskaeraren arabera lizatuko dute instalazioa behar den lekuraino.

Momentuz, Bikamiotaino jardungo dira gas enpresakoak. Obra hauek aprobetxatuko dira, zuntz, edo fibra optikoa sartu behar den garaian hodiak prest edukitzeko.



GABONETAD HAINBAT. Gabon gauean giza katea viatu zen eta plazan bukatu zen ekitaldia.

Ekitaldi ugari presoen alde

ABENDUAN HAINBAT EKITALDI antolatu ditu Orioko Herri Ekimenak euskar presoak Euskal Herriratzea eskatuz.

Sanikolasetan haraualdian egon ziren udaletxeen sei lagun. Gainera, bi kontzentrazio izan ziren, bat gose grebaren hasieran eta beste hukaeran. Bitartean, mahai-ingurua eta manifestazioa antolatu zituzten eta nahiko harrera oso izan zuten. 250 bat lagun elkartu ziren manifestazio isilean eta, herrian huelta eman ostean, herriko plazan

bukatu zen.

Gabon gauean, berri, giza-katea osatu zen herriko plazatik herriko sarreraraino. Ondoren plazan elkartu eta *Hator, bator...* abestir bukatu zen ekitaldia.

Urte Zahar egunean ere kontzentrazio isila egin zen Batera plataformak Euskal Herri osorako deialdiarekin bat eginez. Arratsaldeko 8etan izan zen eta ordu laurdenez hizatu zen; txalo zaparrada hunkigarriz hantekin bukatu zen.

ARRALDE
SAGARDOTEGIA / JATEKIA



ERROLAZUELA
BISTERRIAK
Daganzo de Arriba, 1. 28650
Telf. 91 60 01 10
Fax 91 60 01 11

MAKAZAGA
Igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denelarik egiten dugu
- Prosesiozko kantua komponatzeko gabe

Lan buakuna eta
merkeea

Tfnoa: 943 83 59 00

RAMIRO

Urte berri on!

Telefaxa:
943 83 10 48





HANTZAR ELKARTUTA. Eru guzietako jendea bildu zen Gabon egunean kantatzeko animoak-animoa.

Gabon egunean kantua nagusi

EZ ZUTEN HUTSIK egin eskolako eta ikastolako haur eta gurasoek, eta kantari ibili ziren Gabon egunean kalez kale. Aurten goan ere, karroza bana prestatu zuten bi ikastetxeetakoek. Jaiotza bizi duna batak eta Olentzero besteak; gainera, Musika Eskola kox txistularien laguntza izan zuten herriaren barrena ibiltzeko. 10etan abiatu ziren zaharrenak, trikitilarri eta guzti, eta 11etan besteak eta eguerdirirarte jardun ziren kantari. Bildutako dirua Ruandara bidaliko dute.

Arratsalde partean, 4etatik aurrera, chundik gora oriotarrek osatutako korua jardun zen kantuan ilunabarrera arte.

Nobedadea izan da Salatxo abesbatzaren iniziatiba hau eta jendeak oso ondo erantzun du; alde batetik, kantatzera bildu zirenak ugari eta edade guzietakoak izan zirelako eta, bestetik, entzaleek txalo eta animoak emateaz gain, kantura lotu zirelako. Gainera, 365.000 pta. jaso ziren elizako teilatua komponentzeko.

HANDIK ETA HEMENDIK

ANJEL LERTXUNDI

Idiazlea

"Txinakooren moduko harreri batzen barruan dago sartuta euskara."

EGUNKARIA 99/12/15

MIKEL ORBAÑANOS

Arrun entrenatzalea

"Ez nengo oso deziditua Orion hasteko; nahiago nuen, erdi-purdi ibili baino, ez hasi. Azkenean, ordea, Ondarruko eskaiztza onartzea erabaki dut ondo pentsatu ostean."

EUSKADI IRRATIA 99/12/16

SOR JUSTINA ALDALUR

Moja bertsolana

"Kostumbrea zen Aian, bat moja sartzen zenean, familia osoa autobusean joatea."

BERTSOLARI ALDIZKARIA
99/12/16

Maki Gorate
Japon-egunkaria
CALLE DE LA LIBERTAD, 14
Asegurak
Eusko Gudari, 14 (atzoko) 3. Tfnoa: 943 13 46 07

URBAZTER
ASEGURUA
AHOLKULARITZA
Sociedad Minera de Vizcaya S.A.
Tel.: 943 13 33 19

ODITZ
INFORMAZIONAL DINETAKOAK
GIZON ETA EMARIK ENTZUELEK
943 83 00 89

Marijo
ileapaindegia
Neskak emi mirentzan

ZUMINTZA
Plazas de la Merced
- Pizpirindioa
- Estetika
- Optometria
- Sauna
Tel. 943 45 17 46

GABON
Plaster kombinatuak,
pintxoak eta txokoladak
Tfnoa: 943 83 06 00

KIGELATO
Etxeko helatuak eta
kruasanak
San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

- Estetika
- Masajea
- Tatuaiaik

Eusko Gudari, 8
Tel. 943 13 47 29

Jose Manuel GARATE



‘Gustura asko emango nuke ikastaroa’

Uda parteau antolatu zuen esmalte erakusketa kultur etxearen oriotar honet. Askok orduan ezagutu gumen Zaragozan bizi den bitxigile bau. Erakusketarekin barrituta, esmalte ikastaro bat antolatzekotan dira otsailean Ostargikoak. Jose Manuel maisu dela.

Nolakoa izan zen zure gaztaroa Orion?

Hamasei urtetatik hogeitabi urtera itsasoan ibili nintzen. Gero, urpekari lanetan aritu nintzen hara eta hona. Penintsulako kosta guztian jarduna naiz buzeatzan, baita Kanariak eta Balearetan ere.

Urte batzuk geroago, bihotzeeko transplantea egin zidaten eta urpekaritzaz laga behar izan nuen. Ordurako Azpeitiara joana nintzen bizitzera, 36 urte nituels jarri nintzen bizitzan han. Garaia har-

tan hasi nintzen esmalte lanak egiten, eta traspantea eta gero bete-betean heldu nion afizioari. Urte batzuk geroago bitsigintza ikastera joan nintzen Zaragozara.

Zer moduzko esperientzia izan zen bihotzeko trasplantea jasatea?

Gipuzkoako lehenengo bihotz transplantes izan zen nerea. Egia esan, esperientzi gogorra izan zen hura, nahiz eta operazioa oso ondo atera.

Zertan oinarritzen da esmaltearen teknika?

Oinarria urrezkoa, zilarrezkoa edo brontzezkoa izaten da. Honen gainean jartzen da kristal hautsa, oxido metalikodun kristal hautsa, eta oxido honek ematen dio kolorea esmalteari. Pintzelakin ematen zaio forma esmalteari geru. Ondoren, txapa baten gainean ipini eta labean sartzen da 800-900 bat gradutan. Labean egoakortzen da esmaltea.

Esmaltegintzan gain, bitxigintzan ere aritzen zara.

Nola egiten dira bitxiak?

Bitxiak egiteko urrea erabiltzen da gehienbat, nahiz eta esmaltea eta harris ere askotan erabili. Esku lan gehiago du bitxigintzak esmaletak baino. Lapitza erabili behar da, urrea landu, saftak egin, ebaki, soldiatu, formak eman...

Ikastaro bat egiteko asmoa duzue otsaila aldera Orion. Zer landuko da ikastaro horretan?

Ez dut jende gehiegiz animatuko denik uste eta beharba da ez da emateko aukerarik izango. Nahikoa jende apuntatuko balitz, nik gustura asko emango nuke ikastaroa.

100 orduko ikastaroa izango da eta esmaltegintza ikasten hasteko balioko du. Egunean 3 edo 4 bat orduko klaseak izango dira eta hiru astetan bukatuta egongo da.

Aldez aurretik ez da ezetjakin behar, alegia, ez da teknikariak jakin behar. Hasieran kopiekin egingo dugu lana, kalkatu egingo ditugu formak eta gero jarriko dugu esmaltea. Gerora, jendea ikasten

dosa heinean, norbera hasiko da bere martaziak egiten. Norbaitek koloreekin arazoak balitu, neronek lagunduko nioke. Lehen aipatu ditudan kristal hautsak, oxido eta guzti saltzen dituzte, alde horretatik behintzat ez da arazorik izango. Labea ere neronek ekarrisko dute seguraski.

Nondik datorkizu esmalte eta bitxigintzarako afizioa?

Niri betidanik gustatu izan zait arte erakusketa bat ikusi ondoren, gogoa sartu zitzaidan eta ikasten hasi mintzen. Donostian eta Gasteizen ikasi muen gehienbat, baita Bartzelonan eta Alemanian ere izana nago ikastaroak jasotzen. Egia esan, nik urpekari lanetan jarraituko barna, ez nuke zaletasun hau hainbestera ino landuko.

Zer moduzko harrera izan zuen udarako erakusketak?

Oso ona. Jende asko etorri zen kanpotik eta oso impresio ona jaso genuen jendearen gandik,



SURFA

Orioko 6. Surf txapelketan Joseba Agote aurrena

JOAN DIREN SANIKOLASETAN herriko surflariak izan dira goiztiarenak. Ez zituen hotzak kikildu, ezta lehenengo eguneko itsaso zakarrak ere. Antolatzailak esanda, Orion ez omen da inoiz surf txapelketarik egin halako olatu handiekin. Hala ere, hogerita hamar surflaritik gora izan ziren olatu artean.

Txapelketa Joseba Agotek irabazi zuen, Mikel Agote izan zen bigarrena, Santi Martínez hirugarrena eta Iñigo Fernández laugarrena.

Heineortzai urtetik beherakoentzako kategorian partehartzaileak askoz gutxiago izan ziren eta, horregatik, finala hiru surflariren artean erabaki zen. Unaiz Aizpurua izan zen txapelduna, Imanol Loidi bigarrena eta Iñigo del Hoyo hirugarrena.

Aipatzekoa da, baita ere, Iban Barba gazteak egindako lana, izan ere, Barbak kategoria goorennean aurreneko urtea izan arren, lehendaiziko zortzien artean sartzea lortu zuen.

ARRAUNA

Mikel Orbañanos
Ondarruko
entrenatzaile

HILABETE pare batean zer egin ez zekiela ibili ondoren, Mikel Orbañanosek Ondarruko arraun elkartearren eskaintza onartzea erabaki zuen eta bera izango dute entrenatzaile berria datorren denboraldian. Ondo pentsatutako erabakia izan du Mikelena, Orion urraunean jarraitzen zaizkienetan baitzebillen. Horrela, bada, 6 entrenatzaile oriotar aritu dira datoren denboraldian: Orion, Zarautzen, Trintxerpen, Castron, Zumaian, eta Ondarrun.

Bestalde, J.A. Olaskoaga *Aizperro* eta Asier Puertoas baja dira aurtengo denboraldirako.

PILOTA

Erremonteko
txapelketa berria

ERREMONTEA bultatzeko asmoz XXI. Mendea izeneko txapelketa berria jarri da martxan. Bertan bi oriotar parte hartzen ari dira: Agirresarobe (Iriarte bikote duela) eta Urretabizkia II.a (Iñigorekin).

AHOKULARITZA
Fiscales, laborales, contables

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko rasio bereziak

Tel.: 943 13 30 14

AUTO-LAN

- *Auto konponketak
- *Olio eta gurpil aldaketak

Pelauda: Iñaki,
C/ A.D. 11. 00. 20

URAITZ
LURRINDEGI

KIROMASAIA

LURDAIA: 1. IENDIA 943 83 49 17

OLIDEN
HARATEGIA

Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

ORIO, KAI 5
ZABAUTZ, IPAR 6

Tfnoa: 93 10 90
Tfnoa: 13 17 43

ALLIANZ-RAZ
asegurador

Allianz E&S

MARIGRE ZALDUA

Argazkun-egunkaria

Ibai Ondo, 10
Ibaizabal
Tel. 943 13 47 60

GURE TXOKO
TABERNA

ARIZAGA KAI

TXIRRINDULARITZA

Ziklo-krosa sanikolasetan

URTERO bezala, aurten ere izan dugu ziklo-krosa herriko festetan. Komitekoen esfortzua handia izan da kirol honi eusteko, baina parte hartze txikia izaten da eta zaletuak ere ez dira gehiegiz hurreratzen. Hori dena ikusita, seguru asko azkeneko aldia izango dela esan digute.

FUTBOLA

Preferentekoak larri-larri

ORAINDIK ez da bukatu lehenengo buelta preferentekoentzat, baina nahikoa lan izango dute sailkapeneko zulotik ateratzeko. Hasieran partidu bat edo beste irabazi bazuten ere, gerora bolada txarrean sartu ziren eta burua altza ezinik dabilera aspaldian. Antillan ikusi dugunez, zorte txarra izaten ari dira askotan, batez ere, arbitroen erabakiak direla eta.

Azken urte hauetan aurrelari gisa ibili den Iñigo Uranga, nahiz eta hasieran ez jokatzeko erabakia hartu, berriro basi da herriko taldean.



JOSÉ MARÍA ALBERDI KROSA. Anaiak Realta laga bazuen ere, Juan Anjel Real Sociedaden jarraitzen du, korrika oski.

JOSE MARIA ALBERDI KROSA

J. Anjel Alguacil, zazpigarren

HIRU BAT URTE geldirik egon ondoren, Juan Anjel Alguacil ikusi genuen korrika José María Alberdi krosean. Juan Anjel ez omen zegoen sasoi onenean preparazio aldetik; baina, hala ere, lan polita egin du aurtengoan. 7. postuan bukatu zuen lasterketa, 33:32 denborarekin, eta bera izan zen oriotar bakarra korrikalarien artean.

Gainontzean, parte hartze ona izan dela esan digute komitekoek; batez ere, krosa ez dagoelako oso sasoi onean. Gizonzkoetan ira-

bazlea Cipriano Burcio (Goiherri-garaia) izan zen 32:41 denborarekin eta emakumezkoetan Isabel Eizmendi (Atl. San Sebastian) ailegatu zen aurrena, 19 minuti eta 26 segundutan. Beteranoetan Lourdes Alonso eta Florín García izan ziren txapeldunak.

Kamel Ziani, aldiz, Avilesko krosean izan genuen asteburu berberean eta 5. postua lortu zuen bertan. Seulen egingo den maratoia prestatzen ari omen da Kamel eta hara puntu-puntuak ailegatu nahi omen du.



Eusko Gudari, 18 · Tel.: 943 83 00 07




Lizaso Gariak, M. Otxoa, 17 83-17-94
Tel.: 943 83 21 92



AZKUE
Itsas-gaiak

Eusko Gudari, 12
943 83 25 55



Nestor
Gozategi

Tel.: 607-224100
943 83 12 51



Inaxio Andres
ORIZU, SL
Pintura
drokorrean eta
engagelatze
lanak egiten
dugu
943 83 20 63
909 40 50 98



iTZiAR
Kirolak
Tel.: 943 83 31 03



TXINQURRI
LORAZAINDA
• Aireahei-ibilbidea: Ibilbide mendeak
• Herrikoiztegia: erabiltzaileak
• Mestokoien sistemaren desberdinera eta
mantenerendak
• Ibilbideko mendeak
• Informazioa: cincialdeko teknika
• Estimazioak

01400-1400-11 03300-1400-11
943 83 07 12 943 83 07 12

Ez irri, ez ziri!



RUBÉN IGLESIAS
GAZTE EKIMENKO KIDEA

'Hitz gutxiago eta
ekintza gehiago
neska-mutilak;
bestela, jai daukagu! '

Hamaika ikusteko jacoak gara. 6 herrialdez osaturiko lurralde. Iek 574 preso inguru ditu 2 estatutan sakabanaturik. Hau nahiakoa ez balitz, 2000 errefuxiatu baino gehiago familiatik urrun daude, Euskal Herrira itzu-jiexinik. A ze desastrea?

- IADA, 70 EGUN** dira presoek gose greba mugabea hasi zutela. 20, 21, 22, 23... kilo galdu dituzte eta egoera larrian daude: 45, 46, 47... kilotan geratu dira. Presoekin elkartasuna adierazteko, orain dela 5 bat egun 726 euskaldunek 7 eguneko gose greba egin zuten presoen es-kubideak ez direla betetzen salatzeko. Oinarriko 4 eskuibideak ez direla heterzen salatzeko:
1. Ireki den prozesu demokratikoan parte hartzeko eskuibidea.
 2. Preso guztiek Euskal Herrian izatea,
 3. Zigorraren 3/4ak beteak dituztenak kaleratzea,
 4. Gaixorik dauden presoak kalean izatea.

ESKUBIDE HIRIEN ALDE Orion 5 eguneko gose greba egin genuen. 6 lagunek hartu genuen parte. Gure helburuetako bat herriko 4.300 biztanleak mugiaraztea zen. Horretarako, 2 bilera egin genituen hainbat talderekin 0 izanik orain arteko erantzuna, 0 izan da hartutako

konpromisoa. 0 PNV, EA eta EHk azaldutako horondatea. Hitz gotxiago eta ekintza gehiago neska-mutilak, bestela jai dugu!

Aldi berean, 14 hilabete izan dituzte 2 gohermutako 3 personajek (Mayor, Aznar eta Chirac) zerbait egiteko. Hauen erantzuna ez da izan 0, hauek ez dute erantzunik ere eman, trabak jarri besterik ez.

SARTU BERRIAK GAREN 2000, urtean ezin dugu segundo 1 galdu. Ez du balio 365 egunetik egun bakar 1ean kalera irtetea, 365 egunetan ateria behar dugu kalera. Gazte Ekimenekoak prest gaude beste ahalegin egiteko eta 2001. urte aurretik presoak etxera ekartzeko. Zenbakiek zenbaki, ez irri, ez ziri!

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

●

Tragoxka
Pub

Arizaga, 11
943 15 08 25

Oyak
Otxandizka

DONIBAÑUE

Abetxuri, 4 - Tel: 943 13 41 70

URANGA
Baskonia

Opari, menaje, benemestak...

Iribar, 943 83 2 36 Eusko Gudam, 3

Iturain
estankoa

Arizaga, Plaza, 13 44 73



KAMEL BOURAS

'Jendea itsasora botatzen bada, zerbaitegatik izango da'

Arratsaldeko lau eta erditan jarri genuen hitzordua seietarako bukatuko genuelakoan; seiak aldera, eguzkia sartu orduko, gosaltzera joan behar baitzuten etxera. Izen ere, Ramadan garaian egonda, ezer jan gabe zeuden egun osoan, tripa zorriak kantatzen aspertuak ordurako. Ezin goxatu, beraz, elkarrizketa Maroko aldeko txokolate pixka batekin.

Gaztea eta marokoarra izanik, emigratzera kondenatua zegoen Kamel. Legalki etortzeko aukeraz baliatu da horretarako. Pribilegiatua dela onartu digu eta paperik ez duen jendeak egiten duenaz hitz egiteko aukera izan dugu, beste kontu askoren artean.

RIKARDO UZKUDUN



EUSKAL HERRIRIK

GOSA: Kamel eta Hazan, gombidatu berezia, oraindik kumotarrak kontsideratzen diren arren, Euskal Herrian ikusen dutz berea etorkizun.

Noiz etorri zinen Oriora?

Ni txikitian etorri nintzen Oriora. Gure aitak aspalditxo emigratu zuen eta hemen jarri zuen bizilekua. Normala den bezala, familiarekin batera etorri nintzen hona bizitzera. 2 urte nituen orduan eta 7 urte arte Orion bizi izan nintzen. Ondoren, gurasoek komengarria ikusi zuten ni Marokora bueltatzea, heziketa osasoa jasoko nuen esperoan eta izebarekin bizitzera joan nintzen Tangerrera. Pixkanaka-pixkanaka hango bizi-modura ehitu nintzen, arabea ikasi eta estudiatzen jarraitu nuen. Hala ere, udako oporetan beti etortzen nintzen gurasoengana. 18 urte egin nintuela, utzi egin nion udan etortzeari, baina 1997an, 4 urte geroago, behin-betiko etortzea erabaki nuen.

Zer dela eta etorri zinen?

Ni, garai hartan, literatura espainiarreko 2.kurtsoan nentilien Tetuango unibertsitatean. Ikasten jarraitu nezakeen, baina ez nuen lan irtearik ikusten eta, nere ka-

suan, hona etortzeko aukera izanda, ez nuen bi aldiz pentsatu. Hemen lana bilatzeko aukera gehiago daude eta ekonomikoki askoz hobeto bizi zaitezke. Kasu asko ezagutzen nituen lizenziatura baten jabe izan eta urte pila bat zebiltzanak lan bila. Gainera, konturatzen zara jendea itsasora botatzen dela hona etortzeko eta zuk nahikoa duzula bilettea erostea, alegia, pribilegiatu bat zarela.

Nolakoa da hango gazte jendearen egoera?

Hiriko gazteak 20 bat urte betetzerakoan aukeratu behar izaten du ikasten jarraitu edo eta lanean hasi. Lanean hasteko aukera urriak daudenez, jendeak ikasten jarraitzen du normalean.

"Konturatzen zara jendea itsasora botatzen dela hona etortzeko eta zuk nahikoa duzula bilettea erostea, alegia, pribilegiatu bat zarela."

Baina, hain larria al da ba egoera? Bizitza arriskuan jartzeko moduko?

Jendea edozer moduz itsasora botatzen bada, zerbaitegatik izango da. Egoera hain kritikoa ez balitz ez litzateke horrelakorik gertatuko. Kasu asko ezagutu ditut nik. Esaterako, behin taberna batetan futbol partida bat ikusten ari nintzela galdetu nion umea besoetan zeraman gizon bat. *Zer izango da zure semea haunditzean?*, eta erantzun zidan berak: *Ume bomek 10 bat urte dituenean bemandik banka egongo du mola edo hala*. Horrelako kasuak dira larrienak, hizkia zer den oraindik ez dakiten haurrek emigrazioa buruan sartua edukitzea. Emigrazioa

bizitza onaren simbolo moduan, alegia, oporetan kotxe berriarekin itzultzea, pisutxou erostea, gurasoak erretiroa hartzea, negoziotxo bat jartzear...

Beraz, ez al da larriagoa inbidia?

Egia esan, Marokon behintzat egoera ez da horrenbesterainokoa. Dendarik gabe, inbidiagatik ere arriskatzen diru batzok. Adibidez, zore lagun bat Europara etorri eta ondo ateratzen zaiola ikusten baduzu, zera etortzen zaizu burutia. Eta nik zergatik ez. Gainera, zenbaitzu arabera ez dute ezer galtzeko; horrelako kasuak gehienbat klase bajuko jendearengan ematen dira. Maila kultural eta ekonomiko altuagoko jendeak esperantza handiagoak ditu Marokoko ekonomian. Egoera hohetuko delakoan daude asko, gaur egun baino okerrago nekez egongo baita Maroko.

Gibraltargo itsasartea zeharkatzeko beste aukera bat hemengo emakume batekin ezkontzea da. Emakumeren

bat bilatu, ordaindu, ezkonduta eta ez duzu inongo problema markatua lortzeko. Gero, ezkontzarena kompondu eta legalki hemen gelditzeko esku bidea duzu. Negozio bat bihurtu da hori.

Zer nolako industria eta azpiegitura ditu desarrola-tuen Marokok?

Ez da ahaldu behar gutxi gora-behera langabezia %30eko dela (ez du daturik ematen gobernuak baina), eta hori industria gutxi dagoen seinale da. Nekazaritza, arrantzka, mehagintza (fosfatoa berazki) eta elhungintzadira lan-gintza oparoenak.

Posibilitaterik ikusten duzu hango egoerak hobera egin dezan?

Nik uste dut baietz, erre-kurtso handiak dituen herrialdea da. Problemarik handiena korrupcioa da, ordea. Izugarria da bertako korrupcio maila, horrek gainera bi klasetan bereizten du gizarteak, %3ak osatzen du klase diruduna: monarkikoak, ministroak, inguruko jendea e.a. Azken finean, gizki banatura dago bertako aberastasuna.

Gertzen dena da sobornoaren kultura ere oso zabaldua dagoela. Edozein papel eskuratzeko eskupekoak eman behar izaten zaio funtzionarioari, eta hori horrela da edozein tokian.

Ramadan garaian zaudet, zertan oinarritzen da baraualdi hau?

Ramadan musulmana eta fededuna baldin bazara egin behar da, eta ni hala naiz. Jendeaskok uste du baraualdiak ez jatean oinarritzen dela, baina ez da hori bakarrik. Gauza askori muzin egin behar diozu: edateari, erretzeari, sexu harremanak izateari, gezurrak esateari, lapurtzeari...

Zergatik egiten da guzti hori?

Jainkoari bere aginduak be-

"Gauza askori egin behar diozu muzin: edateari, erretzeari, sexu harremanak egiteari, lapurtzeari, gezurrak esateari..."

tzen dituzula frogatzeko egiten da. Eskerrak emateko era bat da, eman dizkigun gauza guztienatik. Bestalde, bestekiko elkartasunagatik ere egiten da ramadana; zuk gosea pasatzen duzuncan sentitzen baituzu nola beste jende asko egunero dagoen gose.

Hala ere, hemen askoz ere gurxiago bizitzen duzu ramadana, Marokon oso berezia da hilabete hau, kaleko giroa desberdina da: ez duzu inor jaten ikusten (umeak izan ezik), orduetako aldutzen dira, askoz jende gehiago egoten da mezkitetan errezatzen... hemen ez da horrelakoik ikusten eta oso arraroa egiten zaizu.

Zein iruditzen zaizkizu kristautasunaren eta islamaren arteko diferentzia nagusienak?

Nik ez dut gehiegi ezagutzen kristautasuna, baina bada elkartzen gaituen zerhait, alergia, bi erlijioak Jainko baktarean sinisten dugula. Guk, musulman gisa, sinisten dugu kristautasunean, baina uste dugu eraldatuak izan dela denborarekin. Benetako kristau-

tasunaren galeramoduan uler-tzen dugu. Garbi dago, elizak askotan erabili izan duela kristautasuna irabaziak ateratzeko. Islamaz ez litzateke sortuko manipulazio horregatik ez balitz. Gainera, musulmanak ez dugu figurarik edo estatusik behar izan, ez dugu Aita Santua eta Elizaren parekorik.

Betidanik entzun da musulmanak matxistak zaretela, zer diozu horren inguruan?

Koranak esaten du gizona izan behar dela familiaren kar-gu egiten dena. Ez du inoiz esaten emakumeak lanik egin ezin duenik, baina, beti ere, gizona da eguneroako ogia ekartzeko ardura duena. Ezkontzen kontuan, gizonak aukeratu dezake bere andrea zein erlijiotakoa izango den, baina emakumeak musulmanekin erkondu behar dute. Errezagoa da gizonak emakumea erlijioz aldaraztea alde-rantzik baino. Hala ere, Koranak ez du esaten bikotea mu-sulmana bihurtu behar duzunek, ezin duzu behartu, errespetatu egin behar duza.

motxean

Gibraltar

Gibraltar hitza arabek dator, eta zero esan nahi du: Mendia-ren izena. Izen hori itsasadarra lehen aldiz pasa zutenetik buruzagiari juri zuten. Lehorrean urduko erre egin zituzten txalupak atzera egin ez zezaten.

Ala

Jangoikoa ahal guztiduna. Somatzen ez den zero bait da.

Txerria

Izenak berak dioen bezala, txerria. Ni ez naiz oraindik gehiegi fio txemikiek.

Hassan II

Kabro galanta zen. Hala ere, agintzeko garai bizarak tokatu zaizkioa esan behar da.

Haxixa

Diu iturri handia Marokoren-tzat. Jende asko bizi da haosa produzitzetik, nahiz eta diru gehiena agintean daudenek irabazten duten.



FRANCIA
Mando osasun
lana utzako
muniadmenak
baratu egiten
date eguzkia
agertzen
dagoen
bitartean.
Argazkia
ikusten den
moduan,
Ramadan
garaian
errezotz izaten
da nagusia.

EUSKARAZ, aita!

AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA EGIN DU SIADECOK

*1992an somatzen zen kezka
gainditzen basiak gaude Orion.
Garai bordan, SIADECO enpre-
sak egindako inkestaren arabera,
Orio berri euskalduna izanagatik,
erabilera oso pobre zen gazteen
arrean. Bukan berri duen ikerke-
tan, aldiz, nabarmen ikus daiteke
askoz euskaldunago jokatzen
duela gazte jendeak orain dela
8 urte baino.*

RIKARDO UZKUDUN

Urteari bukaera eman aurre-
tik, abenduaren 20an, egin
zuen SIADECO enpresak
azken hilabete hauetan egin-
dako lanaren aurkezpena.
‘Orioko gazteak eta Euskara’
izenburua jarrita, euskararen
bilakaera, egungo egoera eta
etorkizunerako urratsak azter-
tu dituzte lan honetan. Juanjo
Allur aurkezleak esan zuen
eran, luze joko luke lanaren
zehaztasun guztia kontatzea,
beraz, nitez garrantzi koena
dena azalduko dugu errepor-
taje honetan.

Norbaitek xeletasun ge-
hiago jakin nahi baditu, edo
txosten osoaren kopia eskura-
tu nahi badu, Udaleko Euska-
ra Zerbitzuaren eskatu besterik
ez dauka.

EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA

Aipatu dugun 1992ko azter-
keta hartan agertutako feno-

meno bat mantendu da aurr-
tengo datuen arabera: Orion
ez dago euskarak batere ez da-
kien gazte eraldunak. Gaine-
ra, 20 urtetik beherakoentzut
euskaldunak dira 100 la-
gunetatik 99.

Hurrengo orrialdeko goiko
grafikoan ikus dezakegu
1992tik hona euskaldunen
portzentajeak adin-talde des-
berdinan izan duen bilakae-
ra. Ikus daitekeenez, euskal-
dunak lehen baino gehiago
dira lehenengo bi adin mul-
tzotan, baina kopurua jai-tsi
egiten da 20tik 24 urte bitar-
tekoen artean. Honen azpian
fesomenero hau egon daiteke
SIADECOren arabera: azken
urte hauetan herriko zenbait
gazte eraldun iritsi izana.

Bi hizkuntzen ezaguera
konparatz, oso argi azaltzen
zaigu gazte gehienek euska-

raz erdaraz baino hobeto hitz
egiten dutela. Gazteen %68ak
euskaraz hobeto hitz egiten
duela dio, 1992an %45ak zio-
en horriez bera. Erdaraz hobeto
hitz egiten dutenen por-
zentajea nabarmen jaitsi da
urte hauetan, eta bi hizkun-
tzetan antzera moldatzten di-
renetik ia bostetik bat izaten
jarraitzen dute.

SIADECOkoek sumatu
dutenez, gazteek euskarak er-
daraz baino hobeto hitz egin
arren, gazteek erabilten du-
ten euskararen kalitatearen
inguruari badago kezka bar-
batez ere, helduagoen ikuspe-
gitik.

Euskara eta irakaskuntzari
buruzko iritziak ere jaso di-
tuzte. Euskarako ezaguera-
ren orokortzea neurri handi
batean irakaskuntzaren ondo-
rio da eta garantzi handia

ematen zaio gazte guztiek D
ereduan ikasteari, Bestalde,
Derrigorrezko Hezkuntza 16
urterako arte luzatzearen ondo-
rioaz gazteak herrian bertan
geratzea adin horretari arte
oso importantea dela ondo-
riztatu dute.

EUSKARAREN ERABILERA MAILA

Orioko Udalak urtero eginen
duen euskararen leku pu-
blikoetako erabileren neur-
ketako datuen arabera, azken
urte hauetan nabarmena izan-
da euskarako erabileren
igoera haur eta gazteen ar-
tean.

Erabilera denborari
buruzko datuei erreparatuz
gero, joera hau baieztaua
agertzen da: %68ak egin nor-
mal hizkuntza denbora ia guztia
euskaraz ematen duela dio, eta
beste %13 hizkuntza denboraren



JUANJO ALLUR. SIADECOren Juanjo Allurrek egin zuten azterketaren azalpena.

erdia baino gehiago bizi du euskara. Denbora ia guztia euskaraz ematen dutenen portzentajea oso nabarmen igo da 1992tik. Hiru gaztetatik birentzat egun normal hateko komunikazio hizkuntza ia bakarra euskara dela ziurta daitete.


Behenkoadrakoa hainbat esparrutako euskararen erabilera mailari buruzkoa da. Berrian, gazteen harreman esparru gehienetan ia beti euskara egiten dutenen portzentajea asko igo ibila ikus daitete. Batez ere, gazteen arteko harreman informaletan eman da igoerak garrantzitsuena, eskolako edo kaleko lagunen artean, anai-arreben artean eta ligaterakoan.

Aipatu behar da gurasoak direla familian beren artean euskara gutxieng erabiltzen dutenak. Familiako kide guztiek euskaldunak direnean, gurasoek dezenetan erabiltzen dute erdara beren artean. Izan ere, 35-40 urtetik gorako euskaldunen artean ba omen da erdararako joera nabarmena agertzen duen multzoa. Horrik dator, hain zuzen ere, gure erreportajeari jarri diogun titulua.

Oriotik kanpo irtelean ere,

EDACITZA GORA.
Azken zortzi
arte bueltan
gora egia du
gazteri
euskararen
ezagutza.

3. grafikoa: EUSKALDUNEN PORTZENTAIAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA



euskararen erabilera maila dezenetan jaisten da, batez ere, Donostiari joaterakoan.

Betalde, erdararen erabilera fokoa identifikatuta daude Orion: batetik, kirol mundua eta, bestetik, asteburuetako tabernetako gaugiroa.

EUSKARAREKIKO JARRERA ETA IRITZIAK

Egin dituzten elkarritzetan 10 gaztetatik 9k euskarari garrantzi hundiagoa eman behar zaiola adierazi du, eta 10 etik 8k Euskal Herriari bizi diren guztiak euskara jakin beharko lukeela. Gainera, euskarari praktikotasun maila altua ematen diote gazte gehienek: %63ak lan on bat lortzeko beharrezkoztat jotzen

du euskara jakitea.

Betalde, Orion euskararen alde lan egiteko prest egongo liritateen galdeku zaie gazteei, eta esan behar da asko izan direla euskararen sustapenaren alde lan egiteko prest azaldu diren gazteak. Gazte talde moltzo hau Orion euskararen alde egiteko beharrak ez dagoela adierazi omen du.

Datu guzti hauek interpretatzuz, askok egoera normalizatua ikusten dutela somatu dute SIADECOKoek; arrazoaren aurreko jarrera aldatu egia da arazoa bera aldatu delako, alegia.

EUSKARA GAZTERI BURUZKO IRITZIAK


Orokorrean gazteek ongi ha-

loratu dute *Euskal Gazte* egitasmoa. Programa horren barnean antolatutako ekintzei buruz oso iritzi ona agertu dute gehienek. Ekintzen ezagutza maila oso altua izan da, kampainak herriko gazteen artean presentzia aipagarria lortu du. Hala ere, zalanak agertu dira egitasmo honek gazteen hizkuntza ohituretan izan dezakeen eraginaren gai-nean.

Lanaren aurkezlearen hitzetan, herri askotan azterketa egin, proposamenak landu eta bere horretan gelditzenten dira; Orio, herri eredugarria izan da alde horretatik, ekintza ugari antolatu baitira kampaianaren barnean.

ERABILERA: Erabilerak gora egia du, batez ere, alor informaletan.

9. grafikoa: Beti euskara edo euskara gehiago egiten dutenak, esparruaren arabera (%)



AIAKO berri



TERLATURIK GARE. Orioategi berri baserriko teilatua baize bortitzak eraman zuen.

Haizete izugarria

■ Haizeak txikizioak egin zituen baserrietan eta kalean.

DAKIZUEN BEZALA, AURREKO astein sekulako haize ekaitza izan zen bai Europaren eta baita Euskal Herrian ere. Une batzuetan orduko 150 kilometroko albiadurara heldu ziren haize holadak. Bizkaian hiru lagun hil ziren eta Gipuzkoan 45 pertsonetik gora izan ziren zaurituak eta Donostian emakume bat hil zen.

Herrian, zorionez, ez zen hain larria izan; baina, hala ere, haizeak here seinalea utzi zuen hainbat bazterretan, argazkia lekuko. Hiru

zuhantzu erori ziren Zarautz-Aia errepidean eta beste bat Etxetan argi indarraren kableen gainean, auzoa argirik gabe utziz.

Kaskoan, kiroldegia inguratzen duen itxura hota egin zuten haizeak zati batzuetan. Baino kalterik handienak Arratiegia inguruuan gertatu ziren, Orioategi berriko teilatua hankaz gora gelditu baitzen eta Azkorten, berriz, aspaldiko arte dotore bat irudi egin zen.

Goiz-Argi aterpeko bazkide txartela

Goiz-Argi aterpea helduen elkargune bihurtzen ari da eta Udalak aurrerapausoak eman ditu hango funtzionamendua erraztu eta egokitzeko.

Hori dela eta, jakinarazi digute Goiz-Argiko barne jar-dunetako arautegia 1999ko abenduaren 29kó Udal Pleñoan onartu zela. Aterpeko bazkide izateko eta giltza es-kuratzeko, Aian erroldamena izatea eta 50 urtetik gorakoia izatea eskatzen da. Urteko kuota 500 praktika da. Izena emateko udaletxera jo behar da.

Ibilaldi gidatua

2000. urte xelebre honetan gauza batzuek berdin jarraituko dute. Eta horien artean Pagoetan barrena egiten diren ibilaldi gidatuak. Aereta taldeak antolatzen dituenak,

Oraingo mendi buelta urtarilaren 22an egingo da, eta honako ibilbidea izango da: irteera kaskoko aparkalekuak izango da goizeko bederatzi eta erdieta. Hortik hasita, beraz, toki hauetatik pasako da martxa: Giltzaiturri, Bur-nigurutze, Azkorte, Pagoeta, Murugil, Olarteta eta Arreta. Paseoas hasitako toki berean amaituko da ordubata eta erdiak ingoruan.

- Bertako baserrin eta haraguk.
- Elukeko sukalde gozo eta abegina.
- Itxamatzeko menu berezia eta jolusiak.



Gozategi Eparantza, 11 - AIA
Tlf. 943 81 43 21

SEGA

ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 943 83 07 16
Erreka auzoa


ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro Tfnoa: 943 83 45 21

2000 urte

17. Grafikoa: EUSKARA GUTXIEI HITZ EGITEN DUTEN PERTSONAK, LEKUAK (erantzunen bat eman dutenak)



AZTERETA SARSHA. SIADECOk datu asko bildu ditu euskararen egoera baxuz.

Azterketa soziolinguistikoak

Kultura eta Euskara batzordearen iniziatiibaz, SIADECO enpresak egindako azterketa soziolinguistikoa. Lan honen aurkezpenera jende asko joan ez bazen ere, datu interesgarriak plazaratu zituzten. Grafikoan ikusten den bezala, euskara gutxien hitz egiten duten pertsonek emakumeak direla uste dute aiarrek. Baino SIADECoren inkestak argitu du, ez dela emakumeen kon-

tua zehazki. 30 eta 40 urte bitarteko gizon-emakumeengan eta gazteen-gan ematen omen da erdararako joera nabarmenenena. Beste datu garrantzitsua zera da: Santiago Errekako erdal fokoak ez omen du eraginik gainontzeko aiarrengan.

Azterketa honen berri zehatz eta zabalagoa nahi duenak, udalera jo besterik ez du, han izango baitu eskuragarri lan osoa.

LABUR-LABUR

Sor Justinaren liburua

Aurreko alean Zialtzeta baserrian jaiotako Justina Aldalur elkarriketatu genuen liburu bat argitaratu berria duelako, baina ahaztu egin ziizaigun esatea liburua salgai dagoela hai udaletsuan, hai Kultur Etxean nahi dazuen guztientzat.

Asmakizuna

Has dezagun urte berria asmakizun barekin: kaskoan, txoko batetan, ia metro batetako luzera duen balea baten hezurra dago. Geluenok askotan pasako ginen aurrean ohartu gabe. Non ote dago? Hurrengoan erantzuna.

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

Tel. 933 18 22 63 / 933 03 80 | Magikoma: 856 78 00 01 - 856 78 22 99



Aluminio, PVC
Venezzianas
Motorrak...

Tel. 933 18 22 99 | Magikoma 856 78 00 01



Pelukeria
Solariuma
Estetika
c. 832729

Gazte eta jubilatuentzako
prezio bereziak

Bi mila urte igaro zaizkigu: baña noiznik hasita? Jesukristo sortu zanetik onera bitartekoak. Kristo degu beraz aro onen mugarria. Geroztik gertatu dira arrigarritzko aurrerapenak eta aldakuntzak, ogeigaren mende ontan bakurrik beste emeretzitan baño geiago aurreratu dala esan liteke, egintzak dausle leku. Besteak beste, gaur egun jaun da jabe jarri zaigun ordenadoreea esan genezake gizonaren gañetik bera dagoela.

Iistoriaren alde bat aldakuntzaz betea dagon bitartean, beste aldera begiratzean ikuspegi ezberdinak daudagu, gure gizarte su, dana ezin-ikusi, gorroto, gerraz eta konpondu ezinez betea dago zoritzarrez.

Pakearen mezua dabil itzetzikortzera, baita itsuri galantak egin ere, baña munduak lancan jarraitzen du, lasto asko eta garri gutxi, gerrako tresnerietan aurrerapen galantak bai baña odol-ixurtze eta gizaitzreak bide beretik jarraitzen diote, indartsuak aula beti azpian dabilki, eta orrelaxa iritxi gera ainbeste aitamen eta amets eragin- . asiz ditzugun bimillagarren urtera.

Aitorri bearra dago, gaur danetik osatu eta aukeraz beteta bizi gerala baña lengo lasaitasun eta umore-giro aiek erabat galdu ditugu. Zertarako dira orduan aurrerapen eta ugaritasunak urduritasunez eta bildurrez bizitzekotan? Eta amaitzeko "Otaño" aundiaren bertso batetik aditzera emango dizuet Euskal-errian gertatzen zaigunaren berri.

José Mari Lertxundi



ITSASO ALDEA TAUÑIA. Aiako hartzetan dute tokia erabat aproposa da klar askutako turismoa erakartzeko.

AINHOA IGERATEGI

'Landa-turismoari bultzada eman nahi diogu'

Ainboa 25 urteko andoaindarra da eta han jaio eta ban bizi da gaur egun ere. Enpresa zientziatarraren lizenziatura da eta 1999ko ekainaz geroztik Aian ari da lanean, turismo dinamizatzale moduan. Lehenik ere ezagutzen omen zuen herria, txikitán gurasoekin etortzen zelako egunpasa egitera eta, Zarautz edo Getaria joateko gus-tuko duelako Andazarrateko bidea. Horregatik, atsegina egiten zaio gure artean egotea.

ARRETA KE

Zertan datza zure lana?

Tolosaldea Garatzen elkar-teak martxan jarritako proiektu batean ari naiz. Orokorki proiektu honekin Aia bezalako herri txikietan landa-turismoari bultzada bat ematea dugu helburu, beraz, esan dai-

teke landa turismoko dinamiza-ztzaile moduan ari naizela la-nean. Honek bertan egon daitekeen produktu turistikoak sortzea esan nahi du, herriak gaur egun etekinik ateratzen -ez dion baliabide turistikoak azaleratu eta, era berean, inter-

res turistiko izan daitezkeen ekintzak bultzatu eta bideratzea, aurreragoko pausuak promozio eta publizitatea izango dira.

Ze nolako etorkizuna ikusten diozu herriari,

turismo aldetik?

Aia etorkizun oparoa du, beti ere lana seriotasunez eta herritarren eta udalaren arteko elkarlanaz bultzatzaz egiten bada. Gainera Aia leku pribilegiatu batean dago, izan ere Zarautz, Getaria, Oriola eta Zu-

maia bezalako kostu herrien behatoki ezin hobe da eta, era berean, here lurretan Pagoeta Parke Naturala aurkitzen baita. Beraz, bi faktore hauek, dudarik gabe, erakargarritasun handia ematen diote.

Aian turismo arloan zein hutsune edo egiteko ikusten duzu?

Aian Euskal Herriko beste hainbat herrialdetan gertatzen den bezala turismoa ez du sektore ekonomikotzat onartu eta bere eragina eta garapena txikia, ahula eta planifikatu gabea izan da.

Hori, herri honetan ere, nabi da eta pixkanaka azpiegitura bat sortzen joan behar dugu, herria prestatzen, produktua sortzen. Produktua sortzeko osagaiak baditugu, ugari eta oso onak, baina elkartzea eta koordinatza falta zai gu, herriarentzat bizi kalitatea eta urtean zehar hurbiltzen zai zikun ehunduak lagunei kalitatezko eskaintza emateko.

Aia, Gipuzkoako bere moduko beste herrikin parekatuz, nola dagoela iruditzen zaiztu?

Lehen esan dudan moduan leku paregabean aurkitzen da eta dudarik gabe faktore positibo horretaz baliatu izan da orain arte, pasibitate egoera batean murgilduta egotera iritsi arte. Beste era batean esanda, turismo munduan esperimentzia zabala eta izena duten Zarautz bezalako herriaren aterkiaren edo bahesean magitu izan da eta besteek sortu dituzten uhinez baliatu izan da, herri bezala eta bere kabuz pausu gutxi eta ia hutsak emanez.

Beraz, gure asmoa, momento honetan bai herritarren bai udalaren pentsakera eta jokalaria aldatzen saiatzea da eta, bide batez, prozesu honetan guztien implikazioa lortzea, iniciativa osoz eta herri bezala lanari ekinez.

ANDONDOARIA GURE ARTEAN.
Exikitistik ezagutzen du Aia Amboak eta aukera edo ikusten ditu gare berria garatzeko, batez ere kalitatezko turismoaren aruan.



Turismo alorreko interesatuen edukitako hartuemanetan, ze kezka eta proposamen eman dituzte aditzera?

Joan den abenduan egin genuen lehen topaketa eta bertan turismo arloan lan egiten dugun guztioi iritznak eta kezkak ezagutzeko aukera ezin hobe izan genuen. Ideia eta proposamen ugari eman ziren eta guztiok bat egin genuen herriak dituen gabezi eta beharrez hitz egiterakoan.

Maha gainean jarri ziren gaien artean nabarmen sakondu zen seinaleen arazoan: herriaren mugak adierazten dituztenak, basierak eta bukaerak, herriko auzoak, ermita, eliza eta Iturraran eta Agorregiko museoak. Pagoeta Parke Naturala dagoela adierazten dutenak, e.a. Era berean, kezkati azaldu ginen Pagoeta Parkearen egoera eta erabilera buruz hausnarketa egiterikoan. Hemen ere seinale falta ikaragarria dago, mendi ibilbide atsegina inor galdu

gabe egiteko ezintasuna, edota Iturrarango erakusketa zaharkiari buruz luze jardun genuen.

Iharduera turistiko honek Aia bezalako herri batean nolako garrantzi ekonomikoa eduki dezake?

Geroz eta handiagoa, batez ere aisia kontzeptuaren inguruaren gizartean ematen ari den aldaketa kualitatiboa kontuan hartzen badugu.

Esan dudan moduan herriari hariak mugitzen badira zer esan eta zer egin ugari egongo da. Azken finean, makinaria handi bat bezala da, osagai edo pieza moduan jate-txe, nekazalturismo, landactxe, Pagoeta Parkea, ingurune eta paisaje, kokagune geografiko estrategikoa, e.a. dituen makinaria hori martxan jartzear gure erronka. Baina era koordinatu bat jarraituz eta, bietare, bizi-kalitatea bilatuz, bai herritarrentzat, eta bai egoinaldi luzeko nahiz asteburuetako kontsumitzaleentzat.

Honek, dudarik gabe, izango du eragina herri honetako ekonomian, izan ere bertako jende askoren bizibide edo lanbidea baita, edo izango da etorkizunean.

Aurretik aipatutako guztia kontuan izanda, beldurrik eduki behar al diogu garapen turiskoari?

Jendeak errezoak era beldurra du. Turismoaz hitzegitean Mediterraneoan gerratu dena etortzen zaio burura, Benidorm bihurtzeko beldurra. Hala ere, ez dugu hori gertatzerik nahi eta ez dugu utziko hori gerta dadin. Kalitatezko turismo baten alde egiten dugu apustu, garapen egoki batekin estu erlazionaturik dagoena, turismo kulturala, naturarekin lotua dagoena, eta gure herriaren ohiturak eta sustraiak gustora erakutsiko dituena, Aiako jende guztiaren adeitasuna eta izakera ezagutu nahi duten guztiegi gure ateak irekiz.

Turismoa bultzatzeko bizi-kalitatea bilatu behar da, bai herritarrentzat eta, baita ere, datorren bisitariarentzat. Benidorm eta horrelako tokietan gertatukoa ez dugu ikusiko gure artean

Ostargi

Orrialde bonetan Oriorekin zerikusia duten atal asko jorratu dira; baserriekin basi ginen; undoren, soziedadekin jarraitu genien; eta, aurreko zenbakietan, berriko baporcei eman diegu gainbegiratua. Orain, bauek atzean utzita, berriko kultur taldeen berri jakin nabi dugu. Hasteko, Ostargi taldekoekin bitz egin dugu.

AINARA PEÑA

Orain dela bederatzitza urre inguru Udaleko ongizate zerbitzutik ateraz zen Ostargi taldearen moduko bat sortzeko nahia. Talde horrek izango zuen helburu garrantzitsuena emakumeak etxetik ateratzea, izango zen. Honela, bu, bilera bat antolatu zen Itsas etxearen, baina ez zen ezertxo ere lortu. Horri zela eta, gai horrekin pixka bat interesatua zegoen jendea, elkarrekin hitz egiten hasi zen eta, proposamena interesgarria zenez, surrera egitea erabaki zuten. Denera sei lagun elkartu ziren. Udala eta garai hartako zinegotziak laguntzeko prest zeuden, eta baita lokal bat uzteko ere; bera, alderdi horretatik nahikoa lasai zeuden.

Hasiera hartzan elkartu zirenek lehenengo bilerak elizako saloian egin zituzten eta, bertako giltzarik ez zirenean, Gabon tabernari jotzen zuten. Honela, bada, 1991n, talde bat sortzeko nahia egon zen eta, 1992an Ostargi finkatu, eta martxan jarri zen.

Izena jartzeko garaian, Ostargi antzeko hitz bat baruratu zitzaien taldeki bat, hainaz hiztegiaren begiratu zuten eta ez zen agertzen hitz hori; bera, Ostargi hasierako hitz horren antzekoa zenez eta gainera esanahia zuenez, horrekin

geratu ziren. Jakin nabi du zuchontzat, egunsentia esan nabi du Ostargik.

Garai hartzan, hazagoen beste emakume talde bat, hainan talde horrek ez zituen Ostargiren helburu berak; adibidez, talde hark ez zituen estatuak egin nahi edota ez zuten ofizialak izan nahi; horregatik ez ziren hatera joan. Leben esan bezala, Ostargik etxearen zeuden emakumeak atera eta nolabait hauetek zer-hait egiteko aukera izatea es-

kaini nahi zuen. Horregatik, goiko eskoletan ikastaro bat antolatu zuten. Lehenengo bi urteetan polikromiako ikastarna egiten zuten eta 20 lagun inguruk parte hartu zuten; gero, makrame ikastaroa jarri zuten.

LOKAL ALDAKETAK

Ondoren, Azurri etxera joan ziren eta han gauzak aldatu zirent: ikastaro gehiago jarri zituzten, eta jende gehiagok izena eman zuen. Han bi urte pasa zituzten, eta gero, kultur etxeak eraiki zutenean, bertan eman zieten lokala.

Kultur-etxeansartzearekin batera, ikastaroak urtetik urterera gehitzen joan dira eta baita jende kopurua ere. Aurretenguztira 11 ikastaro antolatu dituzte, eta 100 lagun inguruk hartu du parte ikastroetan,

Hala ere, esan ziguten, ikastaro hausetaz gain, autoestima lantzeko saioak ere antolatu zituztelar, eta tabakoa erretzen uzteko kurtsoa antolatzen ere parte hartu zitela.

ERRELEBOAREN ZAIN

Gaur egun, zortzi partaide daude Juntan. Hala ere, Ostargikoek eskertukio luke te jende gehiago animatzea, aspaldidanik baitaude batzak, eta erreleboa emateko gogoa baitute. Horretaz gain, jende berriarekin ideia berriak egongo lirateke, eta hori oso aberasgarria izango zela esan ziguten.


Bukatzeko, taldekoak oso gustura daude Ostargik pixkanaka izan duen harreragatik eta baita parte hartu dutenen artean oso giro politi izatea lortu dutelako.

CORANTZA. Urteak aurreko doazen hiru maila, Ostargi taldea aurreko doa gelditu gabe.



EUSKALDUN

berriak



JAVIER VILCHES

Javi Kataluniarra da, 48 urte ditu eta honetan ia erdia pasa du Alaior. 23 urte zituela Donostiarra etorri zen egun batzuk pasatzena, eta bizikletaz alaiajantzu. Hondartzak, berdetasuna eta herriak ikusirik erabat lotuta sentitu zen Euskal Herrira. Kataluniara bueltatu eta 2 urte pasa ondoren Donostiarra etorri zen, maleto eskuan zuela, eta lan bila, hemen geratu nahi baitzuen. Katalunian bankeetxeen lana bazuen ere, praktikante edo enizain izateko ikasketak egitea erabaki zuen, baita segituan egin ere.

Donostian igaro zituen lehenengo urteetan euskera gutxi ikasi zuen, baina herri txiki batera joateko grina indartzen ziohan bere baitan. Aitora etorri eta euskera ezinbesteko zuela ikusirik, hasi zen ikasten, ikastaro trinko batzuk eginez. Oso esperientzia positiva izan da euskera ikastea, baina zaila, aditzak bereziki, ma-muak baitira niretzat!

Hala ere, oso beharrezkoa deritzo euskera lantzeari. Gaztelararekin ezin dituzu hemengo gauzak gozotu: bertsolariak, herriko festak, hitzaldiak. Pena da hori guztio gaitzea. Beti izango noiz konpontzarrak, baina gaizki hitz egiten badute, hemengo jendearen babesera sentitzen dut, ez Katalunian bezala. Han bailentzen dut hemen inoiz entzun ez dudan: Isildu zaitez, gaizki egiten duzu eta! Estimatzeakoa da jendeoren loguntza.

Euskeria erabiltzen du lanean eta herrian; etxeen eta Donostian, ordea, gaztelania, bere emazteak euskaraz ez da-kielako. Gustura egingo omen luke beste ikastaro bat, jo ta ke euskera ondo menperatu arte!



ORIOKO PINTOREAK GAUR

Aste luzearen 28tik 2000ko urtarrilaren 16ra bitartean egongo da irekita Orioko pintoreen erakusketa kultur etxearen, laj bezala, kultura batzordeak emandako aukera aprobieta dugu hainbat pintorek. Nahiz eta pintore oriotar gehiago badirela jakin, honako hauek dira oraingoan aurkeztu darenak, pintatzeko estiloaren arabera sailkatu ditugu:

Kuadro paisajistak egiten dituztenen artean hauek sartu ditzakegu: Begoña Zaldua, Jose Ramon Salsamendi, Daniel Bastos, Maria Pilar Arratibel, Ione Elizalde eta Juan Jose Egibar.

Impresionisten artean Iñigo Manterola, Pablo Saez eta María Jesus Alkorta. Abstraktuan pintatzen dutenak, berriz, Luis Cisneros, Patxi Txiki, Tomás Esnaola eta Ibi Arrizabalaga dira. Azkenik, errealistaz: Santos Uranga eta Fernando Ortiz de Guinea hartu daitezke, nahiz eta azken hau hiperrealista ere kontsideratu daitekeen.

Kalitate desberdinako lanak aurkitu daitezke, baina orokorrean maila oneko erakusketa dela uste dut nik. Gure nahia, ikusleengana sentitzaile piska bat sortzea da, errazago ulertu ditzaten artista bakoitzaren ikuspuntuak.

PATXI TXIKI

ZORIONAK

Herriko gazteei

SIADECOK egin duen azterketa soziolinguistikoan agertzen denez, Orioko gazteek askoz gehiago egiten dute euskara gaur egun, orain dela hainbat urte baino.

Zorionak, hortaz, gure gazteei. Ea gurasoek ere gazteboernen ejenploari segitzen dioten!

ZORIOTXARRAK

Otsein enpresari

Gure arraunlarien esponsorrak, Bergarako Otseinek, oso egutegia dotore eta itxurosoa kaleratu du 2000. urte honetarako. Ia detaile guztiak undo zaindu dituze: baina, ait, batean huts egin dute nabarmen eta horregatik ekarti ditugu hona: azaleko aurkezpena erdara hutsean egin dute. Ze penal!

Juan Zaragueta hil zen

Orain dela 25 urteko abenduan, urtero katedradun oriotarra, hil zen Donostian. Bere lehenengo liburua, *Introducción general de la filosofía*, hamazazpi urte zituela idatzi zuen, eta geroztik beste asko argitaratu zituen. Zaragueta idiazle oparoa izan baitzen. Izen ere, filosofian buruzko 80 lan idatzi zituen, soziologiari buruzko 27, pedagogia gaia zuten 20, eta 19 erlijioaren gainekoak. Orion lutsa izan zen eta abenduaren 26an omenaldia egin zitzaion. Hileta elizkizuna izan zen eta, ondoren, ikastolan dagoen bere eskulturaren aurrean lore-sorta utzi zuen alkateak.

JUAN ZARAGUETAREN HERIOTZA. Abenduaren 22an 91 urte zitucia Juan Zaragueta, filosofo eta katedradun oriotarra, hil zen Donostian. Bere lehenengo liburua, *Introducción general de la filosofía*, hamazazpi urte zituela idatzi zuen, eta geroztik beste asko argitaratu zituen. Zaragueta idiazle oparoa izan baitzen. Izen ere, filosofian buruzko 80 lan idatzi zituen, soziologiari buruzko 27, pedagogia gaia zuten 20, eta 19 erlijioaren gainekoak. Orion lutsa izan zen eta abenduaren 26an omenaldia egin zitzaion. Hileta elizkizuna izan zen eta, ondoren, ikastolan dagoen bere eskulturaren aurrean lore-sorta utzi zuen alkateak.

SANIKOLASAK. Abenduaren Sean hasita, urtero bezala, San Nikolas jaia ospatu genituen herrian. Festei hasiera emateko, abenduaren Sean, Easo abesbatzak, Iñaki Ansorenen zuzendaritzapean, konzertu arrakastatsua eman zuen herriko elizan udalak antolatuta. Easo abesbatzaren aurretik Orioko haur abesbatzak, Patxi Ollidenek zuzenduta, kantatu zuen. San Nikolas eguneko egitaraua hauxe izan zen: goizeko Betan txistulariak ibili ziren kalez kale, 10etan Meza Nagusia, 12etan

orain dela...

**25
URTE**

1974

nesken saskibaloi partidua, eta arratsaldeko 7etik goizaldeko 2etara dantza izan zen plazan Sur taldearekin. Eguraldia eskasa izan zen (behelainoa eta eurria), nahiz eta tarteka eguzkia ere ateratzen eta temperatura on samarra izan.

RODRÍGUEZ ROMÁN GOBERNAZORE ZIBILAREN BISITA. Abenduaren 20an Gipuzkoako Gobernadorre Zibila bisitan etorri zen gurera gure herriko arazoen berri izateko. Alkatearekin batera eliza eta Goiko kalera joan zen.

Handik Angelaitara, non alkateak barraren arazoak eta herriko ordenazioa azaldu baitzizkion. Ondoren, parbularioa, frontoia, escola, moila... erakutsi zizkion eta bapore batean sartu zen. Azkenik, zenbait egitasmo azaldu zizkion, besteak beste, frontoia estali kiroldegia bihurtzeko.

GABONETAKO EKINTZAK. Gogo jardunak izan ziren bi txandatan antolatuta. Arratsaldeko 4retan emakume ezkonduek joan ziren eta 8etan gaihontzko guztia (meska-mutilak eta gizonak) ikastolak I. gabon-kantu txapelketa antolatu zuten 6-13 urte bitarteko haurrentzat. Epaimahai Gabon tabernan bildu zen arratsaldeko 6etik 2etara abenduaren 24an eta partehartzileek handik pasa behar zuten obestera. Taldeak gutxienez hiru haurrek eta gehienez seik osatu behar zituzten eta, parte hartzeko beste bi baldintzak jaiotza eramatea eta baserritar jantzian joatea ziren. Sari banaketa 29an izan zen.

Gabonetako jakien prezioak, orduan ere, garestitu egin ziren, baina, hala ere oraingoak ikusita merkeak inuditzen zaizkigu. Hona hemen batzuk: legatza 300-400 pezeta, bakailaoa 90-120, almejak 200-280, kopoia 250-270, arkumea 150-160, eta zizak 1000 pezeta.



Akobe



Juan Albizu
elektrogailuak

CARFRA Markako
sukaldeko
altzariak!

Abeslari kalea, 6
Tfnoa: 943 83 12 49

JUANTXO
harategia

Itemengo txikarra.
Especialitatea: tripaniak, mikelak,
atzoko produktuak...

Tfnoa: 943 83 18 37

DORROSORO
JAVARIENDA

www.dorrosoro.com

Carmen
Arraindegia

Tfnoa: 943 83 05 37

IRADI
AHORRADORIA
AHORRATORIA

Alto Larramendi, 33 Telefax 943 13 46 96



ANARRA

IBAI-ONDO, 2 - Tel: 943 83 21 60

Bouzaque
Bouzaque
Bouzaque

Zure gustuko arrasak

Estropalar kalea, 12 - Tf. 943 13 28 16

JAIOTAKOAK**ORION**

Atxu Manterola Iriar, abenduaren 3an.
Aitor Indo Gutiérrez, abenduaren 5ean.
Imanol Azpíroz Averiñ, abenduaren 26an.

AIAN

Aintzira O. de la Torre Ibarra, abenduaren 14an.

HILDAKOAK**ORION**

Fusela Aizaga Izagirre, azaroak 8. 83 urte.
Iñaki Iparragirre Urkiza, azaroak 10. 60 urte.
Julian Iñaki Eguia, abenduak 1. 86 urte.
Juan Casado Sánchez, abenduak 10. 62 urte.
Josefa Karrera Uriola, abenduak 23. 80 urte.

AIAN

Milagros Lasañaga Iribar, abenduak 4. 88 urte.
José Miguel Lizaso Baleril, abenduak 5. 78 urte.
Felicia Montenola Agote, abenduak 8. 75 urte.
Manuel Iruretagoiena Iturzaeta, abenduak 14. 77 urte.
Juan J. Heras Alkate, abenduaren 21ean. 76 urte.

DOKUMENTEAK

**Ainhoa González de Txabarri**

Ainhoa González de Txabarri Ibarguren pasa den abenduaren 14an jaio zen, bere amari lan dexente eman eta gero, lau kilo baino gehiago pisatu baitzituen. Hauxe dugu Gabino eta Maiteren hirugarren seme-alaba eta ahizparekin agertzen da argazkian. Zorionak!

Zuek ere zuen ezkontzako argazkia —edo seme-alaba jaioberraren— txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bidali eta jarriko dugu. KARRAKAREN buzoian utz dezakezue edo, bestela, taldekorren bat eman. Lehenbizi ailegatu zaigunak izango du lehentasuna.

EZKONDUTAKOAK**ORION**

Antonio Narango Quintas eta Raquel Arribas Ojeda, abenduaren 4an.
Juan Francisco Jiménez Ruiz eta Ainhoa Olmo Campín, abenduaren 4an.
José Manuel Vela Marrodán eta Ana Lore Flores Pau, abenduaren 4an.
Jesús María Akotxa Estebanetx eti Mercedes Pelayo Atxit, abenduaren 8an.

AIAN

Jesús Huerga eta Ainhoa Uherjuri, azaroaren 7an.

GUARDIAKO BOTIKAK**URTARRILA**

Tea Azaldéggi	19an Uranga
2 eta 3an Uranga	20an Azaldéggi
4an Oláizola	21an Zulaika
5an Mutiozabal	22an Oláizola
6an Lasa	23, eta 24an Mutiozabal
7an Uranga	25an Uranga
8an Azaldéggi	26an Azaldéggi
9 eta 10ean	27an Zulaika
Zulaika	28an Oláizola
11 eta 12an Lasa	29an Mutiozabal
13an Barrenetxea	30 eta 31an Barrenetxea
14, 15, 16 eta	
17an Lasa	
18an Barrenetxea	

HELBIDE ETA TELEFONOAK

AZALDEGI: Urdaibai kalea, 6. 943 13 37 83 Zazpietza
BARRENETXEA: Gipuzkoako kalea, 17. 943 87 27 98 Zazpietza
LASA: Herniko plaz. 943 87 09 36 Orio
MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 87 29 70 Zazpietza
OLAIZOLA: S. Frantzisku kalea, 16. 943 13 38 14 Zazpietza
ZULAIKA: Biekain kalea, 47. 943 13 39 94 Zazpietza
URANGA: Zigoñako kalea, 17. 943 13 40 19 Zazpietza

SARASUA ERRETEGIA**Plater bereziak:**

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eduko Gofari, 29

Tlfnoa: 943 83 00 05
943 13 25 32

ERROTA

- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zahala
- Eguneuko menua (lanegunetan)
- Oheaak

Tlfnoa: 943 83 54 65

NIRE HONETAN

Matrakari
jiraka

Ale honetako erreportajeari irakur daitekeenez, euskararen osasuna hobetu egin da azken urteotan (Orion, behintzat). Orokorean ere zantzu onak ikusten ditu nire begi oraindik optimistik: alderdi abertzaleen arteko elkarlanak eman ditu, dagoeneko, fruituak eta, esate baterako, Jaurlitzaren aurrekontuetan diru gehiago izango da 2000. urtean euskaran gastatzeko.

Gure inguru hurbilera erreparratu eta ondoko ikusten dugu: EAJko alkatea duten bi herri aztertzen ari dira UEMAn sartzea (Udalerrit Euskaldunen Mankomunitatean); Getaria, alde batetik; eta Aia, bestetik (nahiko erabakita omen dute, esan didatenez).

Gaidera berehala dator, Orion ere izango al da aldaketarik? Hasteo, guri dagokigunez, KARKARAn hasita gaude pentsatzen zer egin herrirei ematen dizuegun zerbitzua hobetzeko, eta buruan daramilgu aldzikaria hamabostero kaleratzen hastea. Alde instituzionalen, berriz, burua lehengo lepotik ez daukagu oraindik alkate euskalitzalerik, lehengo zaharrarekin se-gitzen dugu-eta (2003ean, agian), baina badugu orain arte izan ez duguna: EAJko euskara batzordeburu euskalitzalea. Ez da gutxi; baina... nahikoa izango ote da?

Betiko matrakari daragiola esango duzue, eta arrazoi duzue: ez nuen 2000. urtea hasi nahi, gure alkateari ohiko belarri tira samurra egin gabe. Batere importarik ez dio-la badakit-eta.

JABIER ZABALETA

KANPOAN
daudenak



Leandro Azkue eta Gurutze Larrañaga

Orain dela 10 urte joan zen Leandro Azkue Lanzarotera, berak argitu digunez, bestelako esperimentzia bat bizitzeko asmozan. Gurutzek, berriz, zazpi hilabete bakarrak daramatzatza bertan. Bi urteko harremanen ondoren erabaki zuen Gurutzek Leandroengana joatea bizitzera.

Familialko ogibideari jarraituz, Leandro itsasoan ibili izan da urte hauetan, nahiz eta azkenaldi honean fabrika batetan aritu lanean, Gurutze, aldi, langabeziar dago momentuz, lan-aukeraren bat non aterako. Leandroren esanetan, arrantzaga giroa askoz ere lasaiagoa da eta nabarmen ikusten da hori. Orokorean ere, hango bizimodua lasaiagoa omen da: hemengoa baino.

Orioko zer bilatzen duten faltan galdezu diegunean, ez dute inongo zalantzak izan: familia eta lagunak, aste hukaeratako giroa eta, nola ez, estropadak.

Gurutzek izenarekin izan ditu komeria handienak han. Hiru aldi

“
Euskadunen
batekin
hizketan
jardun
zen
batean,
arrantzale
errusiarrak
zirela
pentsatu
omen
zuten
bertakoek.”

errepikatu beharizaten du gotxinez bere izena. Gehienetan berak idatzi behar izaten du bere izena. Itsasoan gertatu zaizkin Leandrori xeletekeri handienak: esaterako, euskaldunen batekin hizketan jardun zen batean arrantzale errusiarrak zirela pentsatu omen zuen bertakoek.

Nahikoa fama ona omen dugu euskaldunok Kanarietan. Leandro eta Gurutzeren lagunen iritzian behintzat, langileak eta bihotz onokoak omen gara euskaldunok. Gabonetan urtero etortzen dira etxera eta tarteka estropadu garaian ere etortzen direla esan digute, estropadaren bat ikusteko asmoarekin, noski.

Gaintzean, arraza askotako jendea omen dago bertan, baina ondo eusten diete kanariar ohiturei hala ere. *Lucha Canaria* eta *Vela Latinak* modalitatea adibidez. Bestalde, sukaldiean gatza eta pikante asko erabiltzen dute, *Mojo picón* eta *Curbina* solidoa omen dira hango jaki tipikoak.

KELLER
GURE HERRIKO GARAGARDOA

AIRDATZA moda
Eusko Gudariak, 7
83 10 88
ORIO

BIHOTZ, *bibotzez*

Kontakizun bau, mila bederatziebun eta birurogeigaren urte inguruoa Selecciones de Reader's Digest aldizkaritik hartua da eta, bertan, bibotzak berak kontatuko balitu bezala datoz, bere neurri gabeko lan eta arrisku sortzeak, gizakiak berari ematen dizkion lan gogor horren ondorioz.

PATXI OLIPEN

Hara hemen artikulu horretatik ateratako bihotzak kontatzen dizigun kontu bixi-hatzuk:

Nire pisua, 335 gramo ingurukoa da eta kolore gorrikoan naij, forma arrunta diodalarik. Bost bat zentimetro ditut luzeran eta hamir bat, une zabaleanean, eta, poetak nahi duteña esan bezate, nire itxura udare betearrena da.

Egun bakotzean, 96.000 metro bidean botatzen dut odola, esan nahi dut, egunean 15.000 litroko aska betetzeko bainbeste.

Oso gogorra naiz, saltakalari baten zangotako giharrek, edo boxeolari baten besoak baino bi aldiz gehiagoko indarra egiten dut. Berrogeita bost urteko gizonaren hartzen badugu credu, bere bizi guztian hirurehun mila tona odol baino gehiago boteak neuzkake bere gorputzean zehar.


Nire lana etengabea bada ere, atseden uneak baditut. Nire ezker aldeak, gorpuzt guztira odiola botatzen duenean, segundo batean hiru hamarrenekotan egiten du lan, eta ondoren, segundo erdiko atsedena izaten dut.

Batzutan, neurri gabeko esfortzua eskatzen didate. Nik protesta egiten dut, baina ez dit eztertarako balio. Aitzaki franko ere izaten ditut, askotan botere arrazoi gabeak, eta ez dira konturatzten, zenbait kasutan, gorputzaren beste atal batzuen erruak ere, nik konpondu behar izaten ditu-dala.

Behar dudana ariketa

simplea da, elikagai neurtuak, lasaitasuna, haina behin ere ez urduritasun edo estuasunik. Ez dir uste beste munduko gauzarik eskatzen dudanik, nitaz gehiago oroitzea edo arreta apur bat gehiago edukitzea besterik ez.

Era honetan, askoz ere urte gehitagotarako, zure zerbitzuan izango nataizuke. Hala itxaro dut.





Toki Alai taldeko jubenilak 1965ean

Goiko argazkia 1965ean atera zen, martxoaren 21ean, Zarauzko plaieroetako finalaren aurretek. Bertan azaltzen direnak hauek dira: zutik ezkerretik eskubira: Miguel Mari Olasagasti, Inazio Landa, Erramun Uranga, Estanis Sarasua, Luxiano Manterola, Rikardo Aristondo eibartarra eta Inazio Zaldua; makurtuta: Antxon Landa zarauztarra, Jose Javier Piquero, Patxi San Sebastian, Jose Antonio Atorrasagasti eta Javier Urdangarin.

Finalera iritsi ziren, beraz; baina, faboritoak baziren ere, galdu egin zuten Txeru talde getariarraren kontra. Ez nolanahiko emaitzarekin, gainera: best gol sartu zituzten getiarrek eta bat bakarra oriotarrek.

Toki Alai ekipoa ona zen garai hartan. Urte bete lehenago, esate baterako, 1964an, plaieroetako finala irabazi zuen Itsas Ondo zarauztarraren kontra. Txapeldun geratu zen talde hartan jokatzen zuten, goiko gehienez gain, honako hauek ere: Onofre Gama, Pako Alberdi, Jose Antonio Errasti eta Jose Manuel Amillaga.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN



OHARRA

Orio Udalbiltzan

1999ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuran Udalbiltzarekin bat egitea erabaki zuen Udal Plenoak.

Erabaki horren bitartez, hortaz, Orioko Udalak bere egiten ditu Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izaera, eta Udalbiltzako kide izateko borondatea adierazten du.

Herritarrak jakinaren gainean jartzeko argitaratzen dugu ohar hau.

Orio, 1999ko abenduaren 29a.

